

Ezpalak

JON TORNER

30 urte bete ditu Santurtziko Antzerki Jaialdiak



HOGEITA LAU ikuskizun eskainiko ditu Santurtziko Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren 30. edizioak, urriaren 23tik azaroaren 28ra bitartean. Emanaldi gehienak Serantes kultur aretoan izango dira, horien artean *Rigoletto* opera eta Brasilgo Quasar dantza konpainiaren ikuskizuna (argazkian). Kale antzerkiaren egitaraua


lau emanaldik osatuko dute: *Soka* (Kukai konpainiarena), *Cáidos del cielo* (Paloma Pedrero), *Tocata y Fuga* (Zanguango) eta *El Show de la patera rosa* (La Pez).

Arte Eszenikoen Zentroa 2011n ireki nahi du Jaurlaritzak

EITB-REN eta Bizkaiko Ogasunaren egoitzen atzealdean eraikiko dute Arte Eszenikoen Zentroa, Bilboko Erakustazoka zegoen eremuan. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren helburua zentroa 2011n irekitzea da. Orotara 3.180 metro koadro izango ditu eraikinak, eta hamaika metroko garaiera. Arte Eszenikoen Zentroak zein ikasketa jasoko dituen zehazten hasiko dira orain arduradunak. Heziketa arautua eta ez-arautua emateko asmoa dutela iragarri du Isabel Celaá Hezkuntza sailburuak.

Joxerra Garzia kazetari, idazle eta irakasleak jasoko du abenduan 2009ko Abadia Saria. Euskara-aren normalizazioaren eta erabileraren alde egindako lanagatik saritu du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Gose taldeak hirugarren diskoa kaleratu du, aurrekoak bezala, izenbururik gabea. Oraingoan, ordea, diskoetxerik gabe eta hasieratik bukaerara eurek ekoiztiko lana izan da. Diskoak hamar kantu berri eta ezkutuko hamaikagarren bat ditu. Arrasateko (Gipuzkoa) hirukoteak aurreko lanekin jorratu zituen doinuak ekarri ditu oraingoan ere, soinu elektronikoak eta trikia uztartuz.



Alberto Ladron idazle iruindarrak *Abaztuen mendekua* kaleratu du, Iratiko basoan kokatutako *thriller*-a. Karlos Linazasoro tolosarrak, bestalde, naufrago jubilatu batzuen istorioa kontatu du *Urperatzeko bandian*. Elkar argitaletxeak plazaratu ditu bi lanak. Hain justu, Elkar Fundazioak sustaturiko Joseba Jaka bekarekin idatzi du Unai Elorriagak *Londres kar-toizketa* da eleberria ere.

Tolosako 41. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan hamasei herrialdeetako 21 talde arituko dira. Sydney Chamber Choir izango da gonbidatu berezia, lehiaketan parte hartuko duen aurreneko talde australiarra. Azaroaren 1era arte iraungo du abesbatza lehiaketak, eta emanaldi guztiak Leidor aretoan izango dira.

● **Edorta Jimenez idazleak Nabarra** aldizkariaren **urriko zenbakian** [Beranduago jakinarazi zuten Espainiako Narratiba Saria Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* liburuari emango ziotela]: «Susmoen artean bada bat azken urteotan garunak jaten dizkidana. Euskal literatur sistemaren erabaki-gune nagusia, botere-leku printzipala, ez ote dagoen euskal literaturatik kanpo. Non eta, argi esanda, Madrilén. Espainiako Sari Nazionaletan. Orain arte euskal idazle bik eskuratu dute saria, eta horietatik euskal idazlerik itzuliak eta irakurrienak. Bihar-etzi euskal idazlerik irakurriena nor izango den erabakitzeke ahalmena dutenak Madrilén biltzen dira. Urtero. Euskal best-sellerren sortzaileak dira. Miragarria? Gaitzerdi, esango didazue, ez baikara honetan bakarrik. Ba ez, ez gara kolonizatu bakarrak, egia».

● **Belen Altunak El País-en, best-sellerren gaiari tirak**a: «Zergatik ez dira euskaratzen best-seller ugari, agian ez oso kalitate handikoak, baina komertzialki errentagarriak suertatu ohi direnak hizkuntza gehienetan? Eta zergatik ez du aurkitzen bere lekua gurean hainbat literatura-generok? Nazioarteko eleberri historikoak; edo eleberri erromantikoak, genero arroxak, esaterako».

● **Oier Guillan idazleak Berria**n : «Badirudi maitasunari buruz edo heriotzari buruz poesian hitz egitea zilegi dela, baina egunerokotasunean txertatuta dauden gaiak jorratzen dituzunean poesia etiketaduna egiten duzu. Iruditzen zait maitasunaren eta heriotzaren pare badirela beste hainbat gai hunkitzen eta ukitzen gaituztenak egunero, horien artean gai politikoagoak izan litezkeenak».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak


ESTITXU EIZAGIRRE

Bertso eta kontakizun hutsarekin gozatzen dutenentzat

ARRATSALDE euritsu baterako perfektua. Etxeberriaren ahots sarkorra belarrian duzula sartuko zara kontaketan, hain dago ondo jaso bertsolariaren hizkera adierazkorra! (zorionak egileari). Uztapide eta Basarriren garaitik azken belaunaldirainoko izenak ikusiko dituzu sokan, izen ezagun eta herrian ezagun direnak, saio jendetsu eta lagunartekoak... Bertsolariaren aniztasuna, bizitza osoan hor dabilenaren esperientzia jaso.

Asko estimatzen da Lasarteko gainerako bertsolariekin astero biltzeak Etxeberriari ematen dion ikuspegi gaurkotua; lehengo emakume bertsolariari egiten dien aitormena, besteak beste.

Nahi adina arratsalde gozatzeko bertso mordo ere aurkituko duzu bertan. 2005ean Orion bota zituen puntu erantzunak



Patxi Etxeberria. Hizketan bezala bertsoan. 50 urtez plazagizon. Egilea: Xabier Lasa Bergara. Lasarte-Oriako Ttakun Kultur Elkarteko bertso eskola, herri bereko Euskara Batzordearen laguntzarekin.

dira inoiz entzun ditudan onenetakoak. Ezin liburu honetan falta. Hona errenkadan erantzun zituen bost puntutatik bi:

Gozatzen al dezute ohean sartuta?

Ahal dana egiten degu nahiz egon zahartuta partiduak baditugu ezin bukatuta baina ondo eoten gera alkarri helduta.

Eta zure etxean zineak agintzen du?

Ez baleki bezela honek galdetzen du! Andriak bere besua han goian jartzen du; baita zuriak ere hartuko bazendu!



Ipar Euskal Herriko euskal sorkuntza artistikoaren eragileak eta tokiak hobeki ezagutzeko internet zerbitzuak

eke.ORG
Euskal kultura sarean!

 **EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA**
INSTITUT CULTUREL BASQUE

Euskal kultur erakundea
Lota Jauregia - BP 6
64480 Uztaritze
Tel. 00 33 5 59 93 25 25